

2004-2005 ikasturtean gazteen %10 gutxiagok amaitu dituzte lehen mailako ikasketak 1995-1996 ikasturtean baino


Neskak dira nagusiki oinarrizko ikasketak (lehen hezkuntza eta DBH) eta unibertsitateko ikasketak amaitzen dituztenak



2004-2005 ikasturteko datuek adierazten dutenez, Euskadiko gazteen oinarrizko hezkuntzari dagokionean, gazteen %79,9k lehen hezkuntzako ikasketak amaitu dituzte, % 67,3k DBHko lehen zikloa; eta %63,9k DBHko bigarren zikloa.

Datu horiek 1995-1996 ikasturtekoekin alderatuz gero, lehen hezkuntza amaitzen duten gazteen kopuruan %10eko jaitsiera antzeman da. DBH amaitzen duten gazteen bolumena, ordea, igo egin da 2004-2005 ikasturtean, aurreko ikasturteetan ez bezala.

**Ikasketak amaitzearen tasak, mailaren eta aldiaren arabera. EAE.
1995/1996-2004/2005**



Iturria: Eustat

Neska gehiagok amaitzen dituzte oinarrizko hezkuntzako ikasketak (lehen hezkuntza eta DBH) mutilek baino.

Ikasketak amaitzearen tasak, mailaren, sexuaren eta akliaeren arabera. EAE. 1995/1996-2004/2005

	Lehen Hezkuntza			Eskolatzte-ziurtagiria (14 urte)			DBH (14 urte)			DBH (16 urte)		
	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.
1995/1996	90,5	87,6	93,5	22,6	28,2	16,7	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
1996/1997	86,1	82,7	89,7	24,3	30,3	18,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
1997/1998	82,5	79,3	85,9	0,0	0,0	0,0	68,0	60,7	75,7	0,0	0,0	0,0
1998/1999	81,5	77,5	85,8	0,0	0,0	0,0	63,8	56,1	72,0	0,0	0,0	0,0
1999/2000	80,6	76,8	84,5	-	-	-	64,0	57,3	71,1	78,9	71,9	86,3
2000/2001	80,4	75,8	85,1	-	-	-	61,7	53,7	70,2	82,6	78,4	87,1
2001/2002	77,5	73,4	81,7	-	-	-	60,3	52,0	69,3	58,6	52,4	65,1
2002/2003	79,0	74,6	83,6	-	-	-	62,9	55,3	70,7	59,5	52,8	66,6
2003/2004	81,4	77,1	85,8	-	-	-	62,1	54,8	69,7	59,5	53,4	66,0
2004/2005	79,9	75,8	84,2	-	-	-	67,3	60,2	74,8	63,9	57,0	71,1

Iturria: Eustat

Giz. (Gizonezkoak), Emak. (Emakumezkoak)


Lanbide Heziketaren esparruan igo egin da ikasketak amaitu dituzten gazteen bolumena. Aztertutako azken ikasturtean %18,9k amaitu dituzte erdi-mailako ikasketak eta %31,5ek goi-mailakoak. Datuek ezagutzera ematen dute mutilak direla nagusiki Lanbide Heziketako ikasketak amaitzen dituztenak.

Ikasketak amaitzearen tasak, mailaren, sexuaren eta akliaeren arabera. EAE. 1995/1996-2004/2005

	Erdi mailako LH LOGSE (18 urte)			Goi mailako LH LOGSE (20 urte)		
	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak
1995/1996	-	-	-	-	-	-
1996/1997	-	-	-	-	-	-
1997/1998	-	-	-	-	-	-
1998/1999	-	-	-	-	-	-
1999/2000	7,3	8,9	5,6	10,8	13,4	8,2
2000/2001	13,8	16,0	11,6	17,4	19,7	14,9
2001/2002	15,5	18,4	12,5	24,9	27,6	22,0
2002/2003	16,9	19,9	13,7	28,2	31,2	25,0
2003/2004	18,7	21,9	15,4	31,1	33,6	28,5
2004/2005	18,9	21,3	16,3	31,5	33,6	29,3

Iturria: Eustat

Unibertsitatean, lehen zikloko ikasleen %19,7k amaitu dituzte ikasketa horiek. Bigarren zikloa, aldiz, ziklo horretan matrikulatutakoak %22,4k amaitu dute. Lanbide Heziketan ez bezala, gehienbat neskak dira unibertsitate-ikasketak amaitzen dituztenak: lehen zikloan nesken %24,6k eta mutilen %15,0; eta bigarren zikloan, nesken %28,0k eta mutilen %17,0k.



Erlazionaturiko datu taulak:

[1. taula. \(pdf, 24 kb\)](#)

Erlazionaturiko estekak

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)